

ARRAÑO

HASIERA ORDUA: 19:05

BUKAERA ORDUA: 20:50

PARTE HARTZAILEAK:

36 pertsona (17 emakume, 19 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Natxo Urkixo (EHBILDU)

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

Maidier Basterra Ibarretxe (EAJ-PNV)

Ander Añibarro (EAJ-PNV)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Publikoaren artean

-Iñigo Martínez Cerrillo (EH BILDU)

-Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)

Auzokoa: Eskatu du bidea egin dadila San Rokeetik a Larrazabalera; esan du egon bazegoela, baina gaur egun galdua dagoela, auzoarako sarbidea zaila delako. Azaldu duenez, gurdi-bidea zen.

Jonan: azaldu du Udalak bide publikoen inbentario bat onetsi duela eta orain aurkeztutako alegazioak ebatzi behar direla. Aipatu den bidea publikoa da, inbentarioan dago. Erantsi du Arrañoiko bideen arazoa ez dela oraindik konpondu eta HAPOn berrikuspenean planteatzen ziren gaietako bat dela.

Herritarra: gogoratu du duela zenbait urte (99-2003) auzoko ikerketa egin zela eta Arrañoiko 2. aisia-gunetik irtenbide bat egitea planteatu zela. Iradoki du berrazter daitekeela.

Jonan: esan du HAPOn berriskupena birformula daitekeela.

Herritarra: esan du goitik atera beharko balitz, oso narriatuta dagoela.

Herritarra: galdetu du noiz bukatuko diren Arrañoako irisgarritasuna hobetzeko 3 faseak.

Jonan: azaldu du bigarren bukatuko dela eta ez dagoela hirugarren faserako data aurreikusirik. Dena den, posible izango litzateke proiektua egitea eta finantzazioa izan arte itxarotea.

Herritarra: enpresek ez dutenez zuntz optikorik eskaintzen Arrañoan, iradoki du Udalak presioa egin dezala enpresa horiekin.

Jonan: adierazi du Udalaren gaitasuna erlatiboa dela, baina beste kontu batzuetan presioa eragin dela. Oraindik zonalde batzuk abandonatuago egoten dira, oraindik ere, Laudioko industrialde batzuk ez dute zerbitzurik.

Herritarra: 4 gai planteatu ditu.

- Ez da aiptau SOS Parkea plataformaren papera.
- Eremu partikularren garbitze-lanak.
- Saretak garbitzea.
- Ikastolarako igoeran ez labaintzeko produktua ipintzea.

Herritarra: esan du Kasinoko plakan arkitektoa baino ez dela aipatzen eta han lan egin zuten gainerako pertsonak ez direla agertzen.

Jonan: (aurretik esandakoa itzuliz hasi da). Aitortu egin du SOS parke plataformaren lan garrantzitsua, Aldundiak konpromisoak har zitzan, lapsus bat izan da aipatu ez izana (aurreko batzarrean aipatu egin zen).

Auzoan zaindu gabe dauden jabetza pribatuko lursailei dagokienez, Udalak jabeei eska diezaieke garbitzeaz arduratzeko.

Ikastolarako igoerari dagokionez, oraindik ere aplikatzen dira ez labaintzeko produktuak, baina efektuek gutxi irauten dute.

Laura: azaldu duenez, saretak garbitzen hasiak dira dagoeneko, ikastolarako igoeran produktuak aplikatu dira eta lauzak desberdinak ipiniko dira, zatiz zati.

Herritarra: 95ean mugarri batzuk finkatu ziren: irisgarritasuna eta kableak lur azpitik igarotzea. Kableak lur azpian sartzeak proiektua garestiago egin zuen eta orain badirudi kableak lur azpian sartu zituen enpresa itxia dagoela.

Herritarra: galdetu du ea posible den Jose Mardones kaleko irisgarritasuna hobetzea.

Ametsek erantzun dio eremu horretako aldaketak azaldu direla, 10. eta 12. atariei eragingo dietela. espaloia egingo da etxebizitza horietako fatxadaren kontra Zumalakarregi eta José Mardones lotzen dituen igogailua kalearen azken zatiarekin lotzeko.

(herritarrak azaldu du hirugarren dorreaz ari dela, ez dela lau ateratzen).

Herritarra: zehaztu egin du arrapala dagoen tokian hondakin-uren isurbidea dagoela.

Natxo: gehitu du kontuan hartu behar dela leku laiotza dela, goroldioa hazten dela eta hori aintzat hartu behar dela garbitzeko.

Jonan: azaldu du oso obra puntuala dela, oinezkoentzako bidea egiteko igogailuraino. Herritarrek azaldutako zailtasunen aurrean (estali ezin diren kutxatila, hondakin-uren isurbideak), Jonanek azaldu du teknikariek kontuan izango dutela hori.

Herritarra: Aceroseko blokeetara sartzeko eskaileretan, igogailutik jaisten direnetan (orain kendu diren arren) bere garaian barandak eskatu ziren eta ipini egin ziren. Dena den, beste kalerantz, paralelorantz, beste eskailara batzuk daude baina ez dute barandarik.

Laura: ez da aurreikusi barandarik jartzea.

Herritarrak: adierazi dute oraintxe bertan handik jaisten dela jendea.

Laura: bigarren fasearen barruan, eskailera horiek aldatu ziren, baina eskulekuak egin daitezke neguan jaisteko.

Herritarra: auzoan kutxatila elektriko asko irekita daude.

Ondo legoke konpostatze-esperientzia pilotu bat egitea. Arraion konpostatzen dutenek birziklapen-turismoa egin behar dute poltsekin.

Maider: gaur bertan bidali du Kuadrillako teknikariak mezu elektroniko bat horretarako dauden diru-laguntzak azaltzen. Udalak aztertu egiten badu eta auzokideek borondatea agertzen badute, diru-laguntza eska daiteke.

Jonan: nahitaezkoa da jendeak parte hartzea.

Zinegotzia: Amurrioko kasua laburbildu du, auzoa inplikatze beharra, kokapenaren zailtasunak.

Herritarra: jendeari dei egitea, nola erantzuten duten ikusteko.

Jonan: baina jende kopuru nahikoa handia egon behar da.

Herritarra: irisgarritasunaren faseekin nahasten da. Zumalakarregiko igogailuaren eta Aceroseko lehenengo blokearen arteko eskailerak bigarren fasea dira?

Jonan: bai, bigarren fasea da, baina hirugarrena denboran. Ez dago oraindik proiekturik eremu horretarako, dagoena dago momentuz.

Herritarra: eskaileren mailek araudia betetzen dute?

Jonan: ez dute betetzen, baina auzo osoak ez du betetzen, oro har. Gaur egun, ez litzateke baimenik emango han eraikitze, egiten den gauza oro adabakia baino ez da izango, konponbide partziala.

Herritarra: konpostatzea. Zati lehorrerako zonalde bat Udaletik. esan zitzaizen izena emateko, baina konpostatze-gailurako izena ematen zutenak zerrendatik ateratzen zituzten. Komunitatearena izatea nahiago du.

Herritarra: Igogailua egiten ari diren igoera horretan ez da garbitzen. Langileen batzuek diote ez dutela han garbitzeko agindurik jaso eta beste batzuek diote baietz.

Laura: uste du kontratazio-pleguan kale hori pribatua dela esaten dela. Berrikusi egingo da.

Herritarra: pistaren gainean, kalearen goiko aldean urtean behin baino ez da garbitzen..

Herritarra: andelaren eremua ez dute ekortzen, ezta garbitzen ere.

Jonan: esan du batzarretan behin eta berriz ateratzen dela gaia; alde batetik, baliteke ez egitea egin behar den guztia eta, bestetik, eskakizun maila altuagoa da. Halaber, egia da jendeak geroz eta gizabide txikiagoa duela.

Herritarra: San Roke eskaileretan gora, sasiak espaloiak hartzen ari dira. Lorezainei esan zaie eta erantzun dute ez dutela hori atontzeko agindurik. Kutxatilak.

Jonan: kutxatilak enpresenak dira, Udalak ezin ditu konpondu, enpresak presionatzeko bitartekari-lanak egin ditzake. Eskatu du sasiekin eta horrelakoetan arazoak daudenean Udalarari jakinarazteko, Udalak enpresari horren berri emateko.

Herritarra: Arrañoako goiko aldean, andel zaharra zegoen tokian, ez zen hondakinak biltzeko hodia sartu. Bi edukiontzi berde utzi ziren eta garai batean ahokadura atzean zeukan kamioi txikia etortzen zen. Erabiltzaileek ez dute zuzen jokatzeko, joan zen astean edukiontzi gris bakarra uzti zuten. Berehala betetzen da.

Ander: ordezte aurreikusitua zen, zaharkituta zeudelako..

Jonan: Udalarari abisua eman behar zaio Kuadrillarekin hitz egin dezan. Webgunearen bidez ere bidal daitezke.

Herritarra: probalekuko jaitsiera, ermitara doana. Bidea txarto dago.

Joseba: jaso egin da eta egingo da.

Herritarra: azaldu du beste udalerririk batean herritar bat ezagutzen duela eta han herritarrak deitzen duela, joaten direla, argazkia egin, txostena egin, dagokion arlori bidali eta titularrari agintzen zaiola egiteko.

Jonan: zailena da Udalak partikularrei kostuak kargatu behar dizkienean. hemen gauza baera egiten da.

Herritarra: Whatsapp bidez?

Amets, Jonan: Ez, Hobetu zure herria zerbitzura bidal daitezke. Egiten duten pertsona guztiei erantzuten zaie.

Herritarra: duela zenbait urte zarama gazteluan zegoen. Orduan, seinaleak ipini ziren sartzen ziren kamioi handientzat, aparkatu ez zezaten. Dagoeneko kendu daitezke?

Ander: kamioiek edukiontziak hartzeko zituzten zailtasunak azaldu ditu.

Jonan: ezin da aparkatu, baina, edonola ere, Udaltzaimgoari galdetuko zaio.

Laura: altzariak eta traste handiak jasotzeko leku bat ipintzea aztertzen ari dira.